AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3156

AGINDUA, 2013ko ekainaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, transferentziak direla-eta beste herri-administrazio batzuetatik etorri diren funtzionarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionario izendatzekoa, eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta horren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeko den otsailaren 25eko 1/2004 Legeko II. kapituluan jasotako kidegoetan integratzekoa (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen lehenengo xedapen gehigarria indargabetu zuen 1/2004 Lege horrek).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 36.2 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezartzen du transferentzien ondorioz beste herri-administrazio batzuetatik etorrita euskal herri-administrazioetan sartu diren edo sartzen diren funtzionarioak destinoko administrazioaren funtzionario propio bihurtuko direla eta bertako kidego eta eskaletan sartuko direla lehengo kidego eta zereginekin bat etorriz. Halaber, lehengo kidego edo eskalako taldea gordeko zaie eta norbere graduaren arabera aitortuta dituzten diru-eskubideak ere gordeko zaizkie.

Lege-aurreikuspen horiek orokorrak zirela-eta, hainbat arau prestatzeko beharra sortu zen, beste herri-administrazio batzuetatik zetozen funtzionario guztiak euskal funtzio publikoaren egituran eta antolamenduan benetan integratzeko irizpide uniformeak zehaztu zitezen. Halaxe egin zen uztailaren 24ko 195/1990 Dekretuaren bidez, aipatutako integrazioa burutzeko prozedura agindu baten bitartez finkatu behar dela ezarri baitzuen bertako azken xedapenak.

Horiek horrela, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 1997ko irailaren 26ko Aginduak transferentzien ondorioz beste herri-administrazio batzuetatik etorritako funtzionarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoetan integratzeko prozedura zehaztu zuen, baita indargabetu ere lehengo prozedura, alegia, 1990eko azaroaren 23ko Aginduak ezarritakoa.

1997ko irailaren 26ko Aginduan ezarritakoa betez eta eman zaizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Transferentziak direla-eta beste herri-administrazio batzuetatik etorritako hainbat funtzionario, agindu honen eranskineko zerrendan ageri direnak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko karrerako funtzionario izendatzea, adierazitako kidegoetan.

2. artikulua.– Aurreko artikuluak aipatzen dituen funtzionarioek, jarduneko zerbitzuan badaude, betetzen ari ziren lanpostuetan jarraituko dute, lehengo izaerarekin eta baldintza berdinetan.

Agindu honek bukaera ematen dio administrazio-bideari. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 11.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA (*)

B-1/A-2 Administrazio Kudeaketako Kidegoa

16217985	Esteban Sanchez, Joaquin

C-1/C-1. Administrarien Kidegoa

16261656	Ortiz de Orruño Ruiz de Azua, Maria Aranzazu
16252580	Susunaga Gallastegui, Ana Maria
15993861	Carreras Barcena, Ana Carmen
13057815	Rodriguez Rastrilla, Purificación
15946150	Echeverria Larrañaga, Maria Lourdes
13108213	Medel Moral, Maria Pilar
15953568	Velasco Ruiz, Maria Dolores
02605645	Otaegui Bichot, Juan Renato
27232662	Escudero Blanco, Maria Victoria
16500265	Vadillo Castrillo, Rosa Maria
72255708	De Quevedo Ortega, Inmaculada
30555804	Sanchez Ocaña Cabriada, Maria Almudena
14585362	Martinez Gonzalez, Begoña
30586915	Esteras Martinez, Alberto
14594927	Frutos Hernandez, Rosa Maria
30584444	Garma Pedrazuela, Maria Pilar
14548493	Espartero Gonzalez, Amalia
11926876	Pascual Ramos, Jose Antonio
16261511	Alfonso Merchan, Maria Antonia

D-1/C-2 Administrari Laguntzaileen Kidegoa

50020587	Martin Pelayo, Encarnación
16239320	Fernandez Quintana, Maria Blanca
16237544	Reguero Niso, Maria
22740521	Rafael Pascual, Maria Pilar
15230047	Lorea Cuevas, Miren Arantza
16496612	Eguren Fuente, Ana Rosa
15340717	Aizpun Gonzalez, Maria Belen
15897186	De Ocio Porras, Arantza
14683955	Escobal Bargo, Maria Begoña
14889386	Gurtubay Urizar, Amada
14919765	Zaton Prieto, Maria Nieves
14884931	Prieto Fernandez, Raquel
14235903	Martinez Liceranzu, Maria Martina
14576027	Iñarritu Sainz de Baranda, Maria Isabel
14596363	Larrazabal Viadero, Maria Concepción
14954281	Garcia Zuluaga, Francisco Javier
30602730	Santamaria Camara, Aurora
30590177	Villegas Martinez, Maria Soledad
30555767	Ruiz Ruiz, Maria Angeles
14584527	Barcena Encinas, Maria Teresa
72389109	Llanos Hermosa, Idoia
14922308	Diaz Cuezva, Juan Antonio Justo

(*) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko hirugarren xedapen iragankorrak ezarritakoaren arabera eta lege horretako 76. artikuluarekin bat etorriz (apirilaren 13ko BOE), estatutu hori indarrean sartu zenean indarrean zeuden A, B, C eta D sailkapen-taldeak A lanbide-sailkapeneko A1 azpitaldean, A lanbide-sailkapeneko A2 azpitaldean, C lanbide-sailkapeneko C1 azpitaldean eta C lanbide-sailkapeneko C2 azpitaldean sartuta geratu dira, hurrenez hurren.